



## ELKARRIZKETA KREMAILERAZ

	 10 min
MATERIALA: Ø	

### AZALPENA

Bi modu:

- Binaka:

Nire etxean bada ...erloju bat ...

Telebista bat ...

...

Bikoteak aldatu!!

- Gehituz:

Nire

Nire etxean

Nire etxean bada

Nire etxean bada kotxe bat

...



## “HAU NIRE SUDURRA DA”

	 10 min
MATERIALA: Ø	

### AZALPENA



Binaka kontrako elkarrizketa asmatzen ditugu:

- Hau da nire sudurra ( belarria ukituz )
- Hau da nire belarria (Ahoa ukituz)
- Hau da ...

Bikotea aldatu eta jokoa errepikatu



## ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO

	 15 min
<b>MATERIALA</b> - Aulkiak borobilean jarrita	

### AZALPENA

Borobilean eserita gaudela, aulki bat kendu eta taldearen erdian zutiturik:

- ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO ... oinetako zuridunekin!
- Orduan aipatuek tokiz aldatu behar dute arrapaladan, erdian zutik zebilena esertzen ahaleginduko da. Zutik geratzen denak:
- ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO ... ahoa dutenekin!

Erreparatu haurren kokapenari, arnasketari, begiradari, hizkerari, ... hitz batez haurren emozioei.



## ZERGATIK?

	 10 min
MATERIALA: Ø	

### AZALPENA

Aulki batean lagun bat gela erdian esertzen da. Ondorengo hau esaten du:

"Espagetiak gustatzen zaizkit"

Besteek:

"Zergatik?"

Horrela behin eta berriro galdetu arrazoiak agortzen zaizkion arte.

Oso jolas egokia da LH ko lehen ziklotik bigarren ziklora pasa diren haurrentzat.